



**2018KO MAIATZAREN 29KO
OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hemezortziko maiatzaren hogeita bederatzian, arratsaldeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide, Begoña Bueno Barranco, Iñaki Estensoro Sarasola, Amagoia Naldaiz Mingo, Jaber Arrasate Aierbe, Azeari Andonegi Beristain, Ioseba Hernandez Madinabeitia, Marian Zufiria Apeztegia, Imanol Aran Barandiaran, Leire Mendia Arana eta Urtzi Iruin Arruti.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutako onespenera aurkezten da 2018ko apirilaren 24an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzaren Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- GURUTZEKO BERRURBANIZAZIOKO 4. FASEAREN 5. OBRA EGIAZTAGIRIA, LIKIDAZIOA.-

Gurutzeko berrurbanizazioko 4. faseko lanen obra zuzendaritza daramaten Pedro Izaskun arkitektoak eta Estibaliz Igartua arkitekto teknikoak, lanen likidaziokoa den bosgarren obra egiaztatzea egin dute. Bosgarren obra egiaztatze honen zenbatekoa HIRUREHUN ETA LAUROGEITA BAT MILA BEDERATZIEHUN ETA HIRUROGEITA LAU EURO ETA HIRUROGEITA HEMEZORTZI ZENTIMO (381.964,78 €) takoa da. Lanak, Iparragirre S.L., Orsa S.L. eta Iturrioz S.A.k osatutako A.E.B. ari da burutzen.

Udal arkitekto teknikoak obra-egiaztatze hau aztertu eta bere oniritzia eman dio.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, hirigintza obra eta zerbitzuetako batzordearen proposamenaren aurrean, aho batez, Gurutzeko berrurbanizazioa, 4. fasea lanen likidaziokoa den bosgarren obra-egiaztatzea onartzea erabakitzen du.

IV.- KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO 3 ZBK.DUN KREDITU ALDAKETA.-

Udal honetako aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.



Idazkari-Kontu hartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onespen proposamena irakurri dira.

Kreditu aldaketa honen partida garrantzitsuenak Gurutze 1-2ko birrurbanizazioa egiteko eta Iturgaitzagako lursail eraikigarrien trukaketa egiteko hurrenez hurren jartzen diren 820.000 eta 290.000 euro dira.

Andonegi zinegotziak (EH Bildu) esaten du kreditu aldaketa honetako partida edukiarekin ados baldin badaude ere, hauek denak hasierako aurrekontuan jarri gabe gero kreditu aldaketen bidez jartzearekin ez daudela ados. Gaineratzen du honela eginda, aurrekontua onartzerakoan herritarrei ez zaiela iristen urtean zehar egiten den guztiaren informazioa. Eta bukatzen du esanez horregatik abstenitu egingo direla.

Alkateak erantzuten dio esanez herritarrei informazioa iristen ez zaienik ez dela horrela, eta hau ez dela orain egiten den zerbait berria baizik eta honela egin dela historikoki, hau da, hasierako aurrekontua onartu eta gero aurreko urteko likidazioa onartzen denean, honen emaitzaren arabera, kreditu aldaketa bidez, proiektuak egin.

Hau honela, gaia bozketan jartzen da eta Osoko Bilkurak, aldeko 7 boto (EAJ), aurkako botorik gabe eta 6 abstentzioz (EH Bildu), honako erabakiak hartzen ditu:

Lehenik.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko 3 zbk.dun kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapitulukako laburpenaren arabera:

KREDITU GEHIKUNTZAK

Kapitulua	Izena	Gehikuntzak
VI	Inbertsio errealak	1.110.000,00 €
GEHIKUNTZAK GUZTIRA		1.1100.000,00 €

FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
-----------	-------	------------



VI	Inbertsio errealak besterenganatzetik eta hirigintzako jardueretatik ondorioztatutako beste sarrera batzuk	312.583,96 €
VIII	Finantza aktiboak	797.316,04 €
GUZTIRA		1.110.000,00 €

Bigarren.- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

V.- GURUTZE, 1-2KO BERRURBANIZAZIOAREN PROIEKTUA ETA KONTRATAZIO ESPEDIENEA.

Gurutze 1-2ko berrurbanizazioa egiteko proiektua idatzi dute Soroa Arquitectos S.L.P.ko Pedro Izaskun eta Miguel Angel Irazabalbeitia arkitektoek. Proiektu honen aurrekontua, BEZ barne, ZORTZIEHUN ETA HAMASEI MILA SEIEHUN ETA HOGEITA HAMABOST EURO ETA HOGEITA HIRU ZENTIMO (816.635,23€) da.

Bestalde, udal zerbitzu teknikoek proiektu hau prozedura ireki erraztu bidez esleitzeko kontratazio espedientea prestatu dute.

Hau guztiaren aurrean eta hirigintza, obra eta zerbitzuen batzordearen proposamenez, osoko bilkurak, aho batez, honako akordioak hartzen ditu:

- 1.- Gurutze 1-2ko berrurbanizazio proiektua onartzea.
- 2.- Gurutze 1-2ko berrurbanizazio proiektuaren lanak erraztutako prozedura ireki bidez esleitzeko kontratazio espedientea onartu eta lizitazio deialdia egitea.

VI.- GURUTZE, 1-2AN LUR AZPIKO GARAJEAK ERAIKITZEKO PROIEKTUAREN ONARPENA ETA GURUTZE C.10. 15.1 LURSAILA BESTERENDU ETA GARAJEAK ERAIKITZEKO KONTRATAZIO ESPEDIENEA.-

Gurutze 1-2an lur azpiko garajeak eraikitzeko proiektua idatzi dute Soroa Arquitectos S.L.P.ko Pedro Izaskun eta Miguel Angel Irazabalbeitia arkitektoek. Proiektu honen aurrekontua, BEZ barne, BEDERATZIEHUN ETA HOGEITA HAMA MILA BEDERATZIEHUN ETA BERROGEI EURO ETA LAUROGEITA BOST ZENTIMO (931.940,85€) da.

Bestalde, udal zerbitzu teknikoek, Lazkaoko udal plangintzaren arau subsidiarioetako 13 H.J.A. –Hirigoi-en C.10.15.1 lursaila besterentzeko eta ondoren bertan garajeak sustatu eta eraikitzea, prozedura ireki erraztu bidez esleitzeko kontratazio espedientea prestatu dute.

Hau guztiaren aurrean, eta hirigintza, obra eta zerbitzuen batzordearen proposamenez, osoko bilkurak, aho batez, honako akordioak hartzen ditu:



1.- Gurutze 1-2 an lur azpiko garajeak eraikitzekeko proiektua onartzea.

2.- 13 H.J.A. –Hirigoien-en C.10.15.1 lursaila besterentzea eta ondoren bertan garajeak sustatu eta eraikitzea, prozedura ireki erraztu bidez esleitzeko kontratazio espedientea onartu eta lizitazio deialdia egitea.

VII.- ITURGAITZAGAN LURSAIL TRUKAKETA AGAUNTZA BERRI, S.L.REKIN.-

Lazkaoko udal plangintzako arau subsidiarioen 6 H.J.A. –Iturgaitzaga-n Agauntza Berri S.L.k birpartzelazio proiektuaren PR4 emaitzazko lursailaren % 14,825aren jabea da; eta baita ere gune eta proiektu bereko PR10 emaitzazko lursailaren % 4,055arena. Bi lursailetakoko partizipazio hauen balioa 285.464,96€koa da, udal arkitektoak egindako txostenaren adierazten denez.

Bere aldetik Lazkaoko Udala gune berean PR13 emaitzazko lursailean %75,26ko partaidetza baten jabe da.

Agauntza Berri S.L.ren PR4ean eta PR10ean dituen partaidetzen pareko balioa izango lukeen Lazkaoko Udalak PR13an duen partaidetza % 27,904 izango litzateke.

6 H.J.A. –iturgaitzaga- gunearen kudeaketa errazteko lursailetakoko partizipazioak multzokatzeko helburuarekin, Lazkaoko Udalaren eta Agauntza Berri S.L.ren arteko lursail trukaketa egitea planteatzen da.

Hau honela izanda, gaia aztertu ondoren, eta Hirigintza, obra eta zerbitzuetako batzordearen proposamenaren aurrean, osoko bilkurak, aho batez, honako akordioak hartzen ditu:

1. 6 H.J.A. –Iturgaitzaga-n Agauntza Berri S.L.k PR4 emaitzazko lursailaren % 14,825 eta PR10 emaitzazko lursailean % 4,055 eta Lazkaoko Udalaren PR13 emaitzazko lursailean %27,904aren arteko trukaketa onartzea.
2. Alkatea ahalduz udalaren izenean aurreko akordiotik eratorritako zehaztasunak bideratzeko egin beharreko jardun guztiak egin ditzan.

VIII.- UDALAK EMANDA DAUKAN MAILEGUAREN ORDAIN GISA, LAZKAO LANTZEN, S.A.K ITURGAITZAGAN EMANDAKO LURSAILA ONARTZEA.-

Lazkaoko udalak, 2013ko urriaren 31ko osoko bilkuraren akordio bidez, %100eko partaidetzarekin berea duen Lazkao Lantzen S.A. elkarteari mailegua ematea erabaki zuen. Mailegu horrek bi zati zituen, alde batetik Udalak Lazkao Lantzenentzat finantzaketa izateko helburuarekin Banco Sabadellekin izenpetutako 1.250.000€ko mailegua; eta bestetik udalak berak bere dirutik Lazkao Lantzen S.A.ri mailegatutako dirua. Azken honen zenbatekoa 832.066,07€ da. Banco Sabadellekin kontratatutako mailegua, udala amortizatzen joan da eta Lazkao Lantzenek Udalari ordaindu dizkio amortizazio horiek. Mailegu hori aurtengo irailean amaituko da amortizatzen.

Beste zatia ordea, 832.066,07 amortizatu gabe dago.



Hau horrela, amortizatu gabeko zatiaren ordain gisa, Lazkao Lantzenek udalari 6 H.J.A. –Iturgaitzaga-ko PR10 emaitzazko lursaila emanez ordaintzea planteatzen da.

Lazkao Lantzen PR10aren %95,945aren jabea da eta bere balioa, erabat urbanizata, 817.256,63€ da, udal arkitekto aholkulariak egindako txostenaren arabera.

Hau guztia horrela, eta ogasun batzordearen proposamenaren aurrean, osoko bilkurak, aho batez, honako akordioak hartzen ditu:

1.- Lazkao Lantzen S.A.ri emanda daukan maileguaren ordain gisa, honek emandako 6 H.J.A. –iturgaitzaga-n daukan eta 817.256,63€tan balioztatutako PR10 emaitzazko lursailiko %95,945ren parte hartzea onartzea, mailegua balio horretan murriztuz.

2.- Alkatea ahalduentzea udalaren izenean aurreko akordioa bideratzeko egin beharreko jardun guztiak egin ditzan.

IX.- ITURGAITZAGAKO P.R.9 ETA P.R.10 BESTERENTZEKO LIZITAZIORA ATERATZEA.-

Lazkaoko Udaleko Plangintza Arau Subsidiarioetako 6 H.J.A. – ITURGAITZAGA- hirigintza-jarduerarako esparruan dauden PR-9 eta PR-10 bizitegi-lursail eraikigarrien jabea Lazkaoko Udala da. Lursail horietan, etxebizitzak, garajeak eta eranskinak eraikitzea aurreikusita dago.

Onartutako hirigintza-antolamenduan PR-9 eta PR-10 bizitegi-lursail eraikigarriek, PR-11 bizitegi-lursailarekin batera, garaje-erabilerarako soto komun bat partekatzen dute, sarrera eta irteerako ibilgailu-sarbide bakarrekoa, eta berori PR-9 lursaillean dago proiektatuta.

Gaur egun, PR-11 lursailaren eraikuntza oso aurreratuta dago, eta aurreikusita dago aurki okupatu ahal izatea bertan gaitu diren etxebizitzak, garajeak eta eranskinak.

Garajeei dagokienez, PR-9 eta PR-10 lursailak eraikita ez daudenez, PR-11 lursailaren eraikuntzarako konponbide hau aurreikusi da: ibilgailuen igogailu edo goragailu bat aldi baterako ezartzea. Konponbide hori denboran mugatu beharra dago, sorrarazten dituen arazoak direla eta. Gainera, hura gaitzearen ondorioz, oinezkoek erabiltzeko gordetako espaloien zati bat okupatu behar izan da.

Azaldutako egoerak behartu egiten du epe gutxi-asko laburrean PR-11 lursailiko sotoko solairuetarako ibilgailu-sarbideari ekitea. Horretarako, PR-9 eta PR-10 lursailak eraiki behar dira eta, hori dela-eta, Lazkaoko Udalak lizitaziora atera nahi du haien besterentzea.

Adierazitako arrazoiak kontuan izanda, bi lursailak eraikitzean deskoordinaziorik berriro ez izateko, komeni da esleipena osorik lizitatzaille bakar bati egitea.

Azkenik, besterenduko diren lursailak jasaten dituzten urbanizazio-kargei dagokienez, adierazi behar da, esparruaren garapena arautzen duen lankidetzaren bidezko gauzatze publikoko sistemaren arabera, PR-9 eta PR-10 lursailak dagozkien obren eta urbanizazio-kargen zati handi bat Udal Administrazioak gauzatu eta ordainduta dagoela. Hortaz, bidezkotzat jotzen da lursailen esleipendun suertatzen den lizitatzaillea salbuetsita egotea ur-

banizazio-kargetatik. Horiek Lazkaoko Udalak ordainduko dituenek beraiek finantzatzen amaitu arte, prezioan lursail urbanizatuak besterenduko dira.

Hau guztia horrela eta hirigintza, obra eta zerbitzuetako batzordearen proposamenaren aurrean, osoko bilkurak, aho batez, Iturgaitzagako PR9 eta PR10 lursailen besterentzea lizitaziora ateratzeko kontratazio espedientea onartu eta lizitazio deialdia egitea erabakitzen du. Bi lursailen lizitazio prezioa LAU MILIOI LAUREHUN ETA LAUROGEITA BI MILA BEDERATZIEHUN ETA HOGEITA HEMEZORTZI EURO (4.482.938,00€) izango da eta honi dagokion BEZ gehitu beharko zaio.

X.- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN BERDINBIDEAN PROGRAMAN PARTE HARTZEA.-

Gipuzkoako Foru Aldundiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoak Berdinbide programa garatzen du, eta programa honen helburua emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzea da.

Udal honek ere emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldekoa denez, programa honetan parte hartzea planteatzen da, eta horretarako, osoko bilkura honek Berdinbidea programan parte hartzeko konpromiso orria onartzea.

Hau horrela eta berdintasuneko batzordearen proposamenez, osoko bilkurak, aho batez, Gipuzkoako Foru Aldundiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoak bultzatzen duen Berdinbide programan parte-hartzeko konpromiso orria onartzea erabakitzen du.

XI.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Aran zinegotziak (EH Bildu) esaten du ezin egon bat azaldu nahi duela, eta ondoren esango dituenegatik ez lukela nahi gaizki hartzea baizik eta udal pluralago bat izateko urrats bat besterik ez izatea. Hori esanda zera gaineratzen du, udal hau 13 zinegotzik eta bi alderdi politikok osatzen dutela, batek 7 zinegotzi, horietako bat alkatea, eta besteak 6 dituelarik; kexu azaltzen da beraiei udal gaietan ez zaielako parte hartze aukerarik ematen eta esaten du baita ere bestalde badirudiela Gipuzkoako Diputaziotik ere berdin jokatzeari eman diotela, izan ere komunikabideetatik jakin izan zutela Diputatu Nagusia eta Ekonomia Sustapen, Landa Eremuko eta Lurralde Orekako Diputatua Lazkaon izan zirela; eta galdetzen du ea hau al den esaten dugun eta aldarrikatzen dugun gardentasuna edo ondo gelditzeko hitzak diren bakarrik; Gaineratzen du guzti honek ezinegona eta tristezia sorrarazten diela.

Alkateak erantzuten dio esanez gauza bat askotan esateagatik ez dela egi bihurtzen, eta egia dena dela, gauzak planteatu izan direla eta oraindik proposamen edo aportazioen zai dagoela; esaten du baita ere bera hemen udaletxean ia egun osoa egoten dela, goizeko bederatziak laurden gutxitik gutxi gora behera, eta gauean luzatu behar dena luzatzeko prest egoten dela, eta bere ezkerrean eserita dauden beste seirak ere borondate berdina dutela, eta gaur gaurkoz, eta kexu hori azaltzen dutenetatik oraindik ez dela bat bakarrik ere hurbildu berarengana inongo proiekturen inguruko galdera bat bera ere egitera. Diputatuen bisitari buruz esandakoari erantzunez esaten dio berak ezin diola erantzun hauek beraien agenda nola antolatzen duenaren inguruan.



LAZKAOKO
UDALA

Eta bai alde batetik bai bestetik beste parte hartze batzuk ematen dira gaiaren inguruan.

XII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko zortziak hogeit gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

LAZKAOKO
UDALA